

KANALAK

Bezeroak gure museora erakartzeko eta gure proiektuaren berri izateko panfletoak banatuko ditugu hainbat herritan zehar, batez ere Gipuzkoako herrietan, baina baita Euskal Herriko beste hainbat lekutan ere.

Hornitzailearekin izango dugun harremana zuzena izango da, hau da, bilerak egingo ditugu (udaletxetan, eskoletan, zaharren egoitzetan,...) aurrez aurre eta ez telefonotik, horrela gure nahiak errazago transmititu ditzakegu. Hala ere aukerarik ez balego ez diogu uko egingo telefonoz komunikatzeari.

Gure proiektua martxan jartzeko baliabideak lortzerako orduan, bankuaren zerbitzuak ahalik eta gutxien erabiltzen saiatuko gara eta batez ere, administrazio publikoen laguntzak lortzen saiatu.

